

**Gloria Vilchese** (Valentzia, 1978) Ikus-entzunezko Komunikazioko doktore-titulua eskuratu zuen Valentiako Unibertsitatean. *Usos, estilos y formatos contemporáneos del audiovisual de apropiación en España* izeneko ikerketa bat egin zuen, Gasteizko Montehermoso Kulturunearen beka bat jaso zuena (2008). 2009az geroztik, Xcèntric koordinatzen du, Bartzelonako Kultura Garaikideko Zentroko zinema esperimentaleko programa, baita zentro horretako ikus-entzunezko beste proiektu batzuk ere. Aldizka, zinema esperimentalari buruzko eskolak ematen ditu zinema-eskoletan (Elías Querejeta Zineskola, MasterLav) eta unibertsitateko master eta graduondokoetan. Aldi berean, bere proiektu pertsonalak garatzen ditu collagearen eta super8-aren arloan.